

Kirolgi Fundazioak Gipuzkoako kirolariei diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak.

Bases reguladoras del otorgamiento, por parte de Kirolgi Fundazioa, de subvenciones a deportistas de Gipuzkoa.

Oinarri arautzaile orokorrak

1. Xedea.

Oinarri hauen helburua da Kirolgi Fundazioak Gipuzkoako kirolariei kirol talentuaren diru laguntzak emateko arauak ezartzea, honako modalitate hauekin bat etorritik (horien oinarri arautzaile espezifikoak eranskin banatan jaso dira):

- Banakako modalitateetako Gipuzkoako kirolariak. 1. eranskina.
- Modalitate kolektiboetako Gipuzkoako kirolariak. 2. Eranskina.

2. Diru laguntzen onuradunak.

1.- Laguntza hauen onuraduntzat hartuko dira oinarri espezifiko bakoitzean ezarritako eskakizunak betetzen dituzten pertsona fisikoak.

Entitate eskatzaileek oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetatik dagokionean agertzen diren baldintzak bete beharko dituzte, eta ez diete eragin behar martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluen 2., 3. eta 4. ataletan ezarritako debekuren batek.

2.- Dirulaguntzen onuradun izateko debekuek eragiten ez dietela egiaztatzeko diru laguntzaren eskaerarekin batera erantzukizuneko adierazpena aurkeztu ahal izango dute, Kirolgi Fundazioaren ereduaren arabera.

Bases reguladoras generales

1. Objeto.

Es objeto de las presentes bases la regulación del otorgamiento de subvenciones al talento deportivo a deportistas de Gipuzkoa por parte de Kirolgi Fundazioa de conformidad con las modalidades que seguidamente se indican, y cuyas bases reguladoras específicas de concesión se acompañan como anexos:

- Deportistas de Gipuzkoa de modalidades de participación individual. Anexo 1.
- Deportistas de Gipuzkoa de modalidades de participación colectiva. Anexo 2.

2. Personas beneficiarias de estas subvenciones.

1.- Se consideran personas beneficiarias de estas ayudas las personas físicas que cumplan los requisitos establecidos en cada una de las bases específicas.

Las personas solicitantes deberán cumplir los requisitos que se contemplan en el anexo correspondiente de entre los que acompañan a estas bases generales, y no incurrir en ninguna de las prohibiciones de los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.- La acreditación de no incurrir en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones podrá realizarse mediante la presentación de una declaración responsable que se acompañe a la solicitud de subvención, según modelo que facilite Kirolgi Fundazioa.

Edonola ere, zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatze aldera, diru laguntzen kirolari eskatzaileek dagokien organoek egindako ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte; edo horren orde, baimena eman ahal izango dute espresuki informazio hori aipatu organoek zuzenean Kiroldi Fundazioari laga diezaioten.

3. Dirulaguntzetarako eskaerak aurkezteko modua eta epea.

1.- Dirulaguntzen eskaerak dagokien urteko deialdian zehaztutako eredia behar bezala betez aurkeztuko dira.

2.- Eskaerak aurkezteko epea urteko deialdian ezarriko da.

4. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkezteak.

1.- Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko.

2.- Kiroldi Fundazioak eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

5. Emateko prozedura.

1.- Dirulaguntzak emango dira norgehiagokako prozedura erabiliz.

2.- Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia www.gipuzkoakirolak.eus web orrian argitaratuko da.

6. Balorazio irizpideak.

Dirulaguntzen eskaerak baloratzeko irizpideak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako oinarri espezifikoek diru laguntza lerro bakoitzarentzat ezarritakoak izango dira.

En todo caso, para acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, los y las deportistas solicitantes de las subvenciones deberán aportar los correspondientes certificados emitidos por los órganos competentes; o, en su lugar, podrán autorizar expresamente la cesión de dicha información por parte de los citados órganos directamente a Kiroldi Fundazioa.

3. Forma y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.

1.- Las solicitudes de subvención se presentarán debidamente cumplimentadas, conforme al modelo que se concrete en la correspondiente convocatoria anual.

2.- El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

4. Subsanación y documentación complementaria.

1.- Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la persona solicitante para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados.

2.- Kiroldi Fundazioa podrá requerir a las personas solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

5. Procedimiento de concesión.

1.- El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia competitiva.

2.- El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria publicada en la página web www.gipuzkoakirolak.eus.

6. Criterios de valoración.

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los que se señalan en las bases específicas recogidas en los anexos que acompañan a estas bases generales para cada línea de subvención.

7. Finantzaketa.

1.- Hala badagokio, eman daitezkeen diru laguntzak deialdiaren urteko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du diru laguntzak aurrekontuko zein kredituren kargurakoak izango diren.

2.- Oinarri hauen xede diren diru laguntzak xede bereko beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoein, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeenak izanda ere; betiere ez bada dagokion jarduketaren kostua gainditzen.

Hori guztia, laguntza hauen oinarri espezifikoetan bazterketei buruz xedatutakoari kalterik egin gabe, eta horren inguruan beste diru laguntzak arautzen dituzten araudiek ezar daitekeenari kalterik egin gabe.

3.- Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolanahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke diru laguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

8. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabilgarri dagoena eta oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako oinarri espezifikoetan definitutako dirulaguntzen balorazio eta kuantifikazio irizpideak kontuan izanda.

9. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.

1.- Diru laguntza hauek emateko prozedura bideratzea Kiroldgi Fundazioa kudeatzen duen enpresari egokituko zaio.

2.- Enpresa kudeatzaile horretako langileek eskaerak aztertuko dituzte, eta eskaera bakoitzaren balorazio txostena egin ondoren, ebazpen proposamen bat osatuko dute, bertan zehaztuz egindako ebaluazioaren emaitza. Ebazpen proposamena Kiroldgi Fundazioaren Batzorde Eragileari bidaliko dio, honek bere onarpena eman dezan.

7. Financiación.

1.- Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos de Kiroldgi Fundazioa del año de la convocatoria. La convocatoria establecerá las cuantías presupuestarias con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

2.- Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que no se rebase el coste de la actuación subvencionada.

Todo ello, sin perjuicio tanto de lo dispuesto respecto a exclusiones en las bases específicas de estas ayudas, como de lo que pudiera establecerse en la normativa reguladora de otras subvenciones concurrentes.

3.- Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

8. Cuantía de las subvenciones.

El importe de la subvención se fijará con arreglo a la documentación aportada por la persona solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración y de cuantificación de las subvenciones definidos en las bases específicas recogidas en los anexos que acompañan a estas bases generales.

9. Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.

1.- La instrucción del procedimiento de concesión corresponderá a la empresa gestora de Kiroldgi Fundazioa.

2.- Las solicitudes serán analizadas por el personal de dicha empresa gestora, que elaborará un informe de valoración de las mismas y emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y que será elevada a la Comisión Ejecutiva de Kiroldgi Fundazioa para su aprobación.

10. Diru laguntzak emateko ebazpena.

1.- Kirolgi Fundazioaren Batzorde Eragileak, prozedura ebazteko organo eskuduna den aldetik, ebazpena egingo du, eta batzorde horretako lehendakariak eta idazkaritzak sinatuko dute.

2.- Deialdiaren ebazpena www.gipuzkoakirolak.eus web orrian argitaratuko da.

3.- Behar den ebazpena eman eta argitaratzeko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori dagokion deialdia argitaratzen denetik aurrera kontatuko da.

11. Onuradunen betebeharrak.

Diru laguntzen xedeko kirol programen garapenean honako ekintzak betetzeko konpromisoa beren gain hartuko dute onuradun suertatzen diren kirolariek:

1.- Kirolgi Fundazioari bidaltzea bi argazki original, diruz lagundutako programako jardueran jokoan hartuak, eta gutxienez 15 x 20 cm neurrikoak. Argazki horiek formatu digitalean aurkeztea nahiago izanez gero, gutxienez 1 Mb-ko erresoluzioa izan behar dute. Helbide elektronikoa hauxe da: fundazioa@kirolgi.org

Argazkiak Fundazioaren jabetzakoak bihurtuko dira, eta ez dute "ur-markarik" izango.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirolaren Departamentuak eta Kirolgi Fundazioak kirolariaren irudia erabiltzeko aukera izango du bere komunikazio ekintzetan, egokitzen jotzen badu.

2.- Kirolaria harpidedun den sare sozialetan, halakorik balu, gutxienez 10 sarrera egitea denboraldian zehar; horietatik bik kirolariaren irudiak edo bideoak izan behar dituzte. Aipatutako sarrera horietan Kirolgi Fundazioaren lankidetzak adierazi beharko da, fundazioak parte hartzen baitu laguntzaren xedeko programan eta Facebook eta/edo Gipuzkoa Kirolak-en Twitter orriaren lotura xertatuko da.

3.- Gipuzkoako klubean kirol lizentziarekin jarraitzea kirol denboraldi baterako.

10. Resolución de concesión.

1.- La Comisión Ejecutiva de Kirolgi Fundazioa, en tanto que órgano competente para resolver el procedimiento, dictará resolución que será firmada por la presidencia y la secretaría de dicha Comisión.

2.- La resolución de la convocatoria será objeto de publicación en la página web www.gipuzkoakirolak.eus.

3.- El plazo máximo para dictar y publicar la resolución que corresponda será de seis meses. El plazo se computará desde la publicación de la correspondiente convocatoria.

11. Obligaciones de los y las beneficiarias.

Los y las deportistas beneficiarios se comprometen en el desarrollo de los programas deportivos objeto de la subvención a las siguientes acciones:

1.- Remitir a Kirolgi Fundazioa dos fotografías originales tomadas en juego en las actividades del programa subvencionado de un tamaño no inferior a 15 x 20cm. Si opta por la presentación de dichas fotografías en formato digital tendrán una resolución no inferior a 1Mb. La dirección de e-mail es: fundazioa@kirolgi.org

Las fotografías pasarán a ser propiedad de la Fundación y estarán libres de "marcas de agua".

Kirolgi Fundazioa y el Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrán utilizar la imagen del/de la deportista para aquellas acciones de comunicación que estimen oportunas.

2.- En su caso, registrar en las redes sociales a que esté suscrito al menos 10 entradas a lo largo de la temporada, incluyendo en al menos dos de ellas imágenes o videos del o de la deportista. En dichas entradas se indicará la colaboración de Kirolgi Fundazioa en el programa objeto de la subvención y se incluirá enlace a la página de Facebook y/o Twitter de Gipuzkoa Kirolak.

3.- Mantener la licencia deportiva con un club guipuzcoano durante una temporada deportiva.

4.- Kirolgi Fundazioarekin lankidetzan aritzea, honako ekintzekin:

- Kirolariak parte hartuko duen lehiaketa guztietan, kirol jantzietan eta/edo kirol osagarrietan Gipuzkoa Kirolako logotipoa ikusgai eramango du, betiere erregelamendu arauen arabera zilegi bada.
- Kirolariak jendaurreko agerraldi guztietan Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirolaren Departamentuaren eta Kirolgi Fundazioaren irudia sustatuko du, baita komunikabideetan ere (telebista, irratia, argitalpenak, prentsa idatzia...).
- Genero berdintasunaren, gizarte inklusioaren eta bestelako arlo batzuetan Kirolgi Fundazioak bultzatutako jardueretan lankidetzan jardungo du kirolariak.

12. Diru laguntzen ordainketa.

Diru laguntzak esleitzen diren une berean ordainduko dira bere osotasunean.

13. Diru laguntzen justifikazioa.

1.- Diru laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla dokumentu bidez zuriu beharko da, beka edo laguntza mota bakoitzari dagokion eranskinean adierazten den eran eta epeetan.

14. Diru laguntzen itzulketa.

1.- Entitate onuradunak ez baditu oinarri hauetan, espezifikoen eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen, diru laguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galdutzat joko zaio, eta diru laguntza osoa edo zati bat itzuli beharko du.

2.- Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira eta egindako jarduerak guztien eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera kalkulatuko dira.

4.- Colaborar con Kirolgi Fundazioa en las siguientes acciones:

- En todas las competiciones en las que participe lucirá en su indumentaria y/o accesorios deportivos el logotipo de Gipuzkoa Kirolak, siempre que las normas reglamentarias lo permitan.
- En todas sus apariciones públicas promocionará la imagen de Kirolgi y el Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como en los diversos medios de comunicación (tv., radio, publicaciones, prensa escrita, ...)
- Colaborará en aquellas actuaciones en materia de Política de igualdad de género, inclusión social y de otros ámbitos que impulse Kirolgi Fundazioa.

12. Pago de las subvenciones.

Las subvenciones se abonarán íntegramente en el momento de su concesión.

13. Justificación de las subvenciones.

1.- La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención se documentará de la manera y en el plazo que se indica en cada caso en el anexo correspondiente.

14. Reintegro de las subvenciones.

1.- El incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases generales, en las específicas y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente.

2.- Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados en función de las acciones realizadas respecto a la totalidad de las mismas y a los importes percibidos.

15. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauen xede diren laguntzei, bertan eta oinarri espezifikoetan (eranskinetan jasotzen direnetan) ezarritakoaz gain, honako hauek aplikatuko zaizkie, ordezeko gisa: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa, eta hori garatzeko emandako araudia, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa.

15. Normativa aplicable.

Las ayudas objeto de las presentes bases se regirán por lo dispuesto en las mismas y en las bases específicas contenidas en los anexos, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

OINARRI ESPEZIFIKOAK

BASES ESPECIFICAS

1. ERANSKINA.- Banakako modalitateetako Gipuzkoako kirolariak.

1.- Helburua.

Oinarri hauen helburua da Kiroldgi Fundazioak Gipuzkoako banakako modalitateetako kirolarien talentuari diru laguntzak emateko prozesua arautzea.

2.- Onuradunak.

Gipuzkoako kirolariak, honako eskakizunak betetzen badituzte:

1.- Hemezortzi urtetik gorakoa izatea. Automatikoki baztertuta geratuko dira deialdia egin den urtearen aurreko abenduaren 31n 18 urte bete gabe dituzten kirolariek egindako eskaerak.

2.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko klubetan bateko kide izatea, behar bezala justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

3.- Kiroldgi Fundazioak adierazitako kirol merituak betetzea.

Gipuzkoako kirolaritzat hartuko dira kirol arloko prestakuntza, kadeteen eta jubenilan, Gipuzkoan jaso dutenak, betiere, gutxienez hiru denboraldi segidan eman badituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko klubetan. Hori egiaztatzeko, kasu bakoitzean dagokion federazioak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du kirolariak.

3.- Baztertuak.

Ez dira aintzat hartuko Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako antzeko edo helburu bereko baten laguntzaren baten onuradun diren kirolarien eskaerak.

Zirkuitu profesioaletan parte hartzen duten kirolarien eskaerei ez zaie erantzungo.

ANEXO 1.- Deportistas de Gipuzkoa de modalidades de participación individual.

1.- Objeto.

El objeto de las presentes bases es la regulación de la concesión por parte de Kiroldgi Fundazioa de subvenciones al talento de deportistas de Gipuzkoa de modalidades de participación individual.

2.- Personas beneficiarias.

Las y los deportistas de Gipuzkoa que cumplan los siguientes requisitos:

1.- Ser mayor de dieciocho años. Se excluirán automáticamente todas aquellas solicitudes de deportistas que a 31 de diciembre del año anterior a la convocatoria no hayan cumplido 18 años.

2.- Estar adscrita/o a un club del Territorio Histórico de Gipuzkoa, salvo excepciones debidamente justificadas.

3.- Reunir los méritos deportivos establecidos por Kiroldgi Fundazioa.

Se considerarán también de Gipuzkoa a las y los deportistas formados deportivamente en las categorías cadete y juvenil en Gipuzkoa que lleven un mínimo de tres temporadas consecutivas en clubes del Territorio Histórico de Gipuzkoa, esto último, se acreditará mediante certificado emitido por la federación correspondiente.

3.- Exclusiones.

No serán atendidas las solicitudes de las y los deportistas que sean beneficiarios de ayudas similares o con la misma finalidad otorgadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

No serán atendidas las solicitudes de las y los deportistas que participen en circuitos profesionales.

4.- Baloratzeko irizpideak eta nola aplikatu.

1.- Deialdiaren 2024ean lortutako kirol-merezimenduak baloratuko dira.

Kontzeptu honetan pertsona bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, honako irizpideak hartuko dira aintzat:

4.- Criterios de valoración y su aplicación.

1.- Se valorarán los méritos deportivos obtenidos en el año 2024.

Para la cuantificación del importe de la subvención que corresponda a cada persona por este concepto se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

Kirol modalitateak / Modalidades deportivas	Sailkapena / Clasificación	Puntuak / Puntos
Modalitate eta diziplina olinpiarrek / Modalidades y disciplinas olímpicas		
Europako edo munduko emakumezkoen txapelketa, maila absolutuan / Campeonato de Europa o del Mundo absoluto femenino	1etik 3era / 1 al 3	10
	4tik 15era / 4 al 15	8
Europako edo munduko gizonezkoen txapelketa, maila absolutuan / Campeonato de Europa o del Mundo absoluto masculino	1etik 3ra / 1 al 3	10
	4tik 10era / 4 al 10	8
Maila absolututik beherako hurrengo mailako Europako edo munduko emakumezkoen txapelketa / Campeonato de Europa o del Mundo de la categoría inmediatamente inferior a la absoluta femenina	1etik 3ra / 1 al 3	8
	4tik 15era / 4 al 15	6,5
Maila absolututik beherako hurrengo mailako Europako edo munduko gizonezkoen txapelketa / Campeonato de Europa o del Mundo de la categoría inmediatamente inferior a la absoluta masculina	1etik 3ra / 1 al 3	8
	4tik 10era / 4 al 10	6,5
Estatuko-Espainiako emakumezkoen txapelketa, maila nagusian / Campeonato Estatal – España absoluto femenino	1	5
	2tik 5ra / 2 al 5	4
Estatuko-Espainiako gizonezkoen txapelketa, maila nagusian / Campeonato Estatal – España absoluto masculino	1	5
	2 eta 3 / 2 y 3	4
Maila absolututik beherako hurrengo mailako Estatuko-Espainiako emakumezkoen edo gizonezkoen txapelketa / Campeonato Estatal – España femenino o masculino de la categoría inmediatamente inferior a la absoluta	1	3
	2 eta 3 / 2 y 3	2,5

Modalitate eta diziplina paralinpiarak / Modalidades y disciplinas paralímpicas		
Europako edo munduko emakumezkoen edo gizonezkoen txapelketa, maila absolutuan / Campeonato de Europa o del Mundo absoluto femenino o masculino	1	10
	2tik 5era/ 2 al 5	8
Estatuko-Espainiako emakumezkoen edo gizonezkoen txapelketa, maila nagusian / Campeonato Estatal – España absoluto femenino o masculino.	1	5
	2 eta 3 / 2 y 3	4
Bertako modalitate eta diziplinak / Modalidades y disciplinas autóctonas		
Herri kirolak		
Euskadiko emakumezkoen edo gizonezkoen txapelketa, maila absolutuan / Campeonato de Euskadi absoluto femenino o masculino	1	3
	2 eta 3 / 2 y 3	2,5
Euskal pilota / Pelota Vasca		
Europako edo munduko emakumezkoen edo gizonezkoen txapelketa, maila absolutuan / Campeonato de Europa o del Mundo absoluto femenino o masculino	1	5
	2 eta 3 / 2 y 3	4
Espainiako edo Euskadiko emakumezkoen edo gizonezkoen txapelketa, maila absolutuan / Campeonato de España o Euskadi absoluto femenino o masculino	1	3
	2 eta 3 / 2 y 3	2,5
Gipuzkoan erroturiko eta tradizio handiko modalitate eta diziplinak: mendizaletasuna, eskalada, surfa (*) Modalidades y disciplinas con arraigo y tradición en Gipuzkoa: montañismo, escalada, surf (*)		
Europako edo munduko emakumezkoen edo gizonezkoen txapelketa, maila absolutuan / Campeonato de Europa o del Mundo absoluto femenino o masculino	1etik 3ra / 1 al 3	8
	4tik 10era / 4 al 10	6,5
Estatuko-Espainiako emakumezkoen edo gizonezkoen txapelketa, maila nagusian / Campeonato Estatal – España absoluto femenino o masculino.	1	5
	2 eta 3 / 2 y 3	4
Modalitate eta diziplina ez olinpiarak/ Modalidades y disciplinas no olímpicas		
Europako edo munduko emakumezkoen edo gizonezkoen txapelketa, maila absolutuan / Campeonato de Europa o del Mundo absoluto femenino o masculino	1etik 3ra / 1 al 3	5
	4tik 10era / 4 al 10	4

Estatuko-Espainiako emakumezkoen edo gizonezkoen txapelketa, maila absolutuan / Campeonato Estatal – España absoluto femenino o masculino	1etik 3ra / 1 al 3	3
Modalitate eta diziplina ez paralinpiarrek/ Modalidades y disciplinas no paralímpicas		
Europako edo munduko emakumezkoen txapelketa, maila absolutuan / Campeonato de Europa o del Mundo absoluto femenino	1etik 3ra / 1 al 3	5
	4 eta 5 / 4 y 5	4
Estatuko-Espainiako emakumezkoen edo gizonezkoen txapelketa, maila absolutuan / Campeonato Estatal – España absoluto femenino o masculino	1etik 3ra / 1 al 3	3

(*) *Dagokion txapelketa ofizialeko ranking ofizialean lortutako postua (zirkuituko proben batura) hartuko da meritutzat.*

(*) *Se contabilizará como mérito el puesto obtenido en el correspondiente ranking oficial (suma de pruebas del circuito) del campeonato oficial referido.*

2.- Diziplina ez olinpiar edo ez paralinpiarren multzoan sartzen dira deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31n modalitate olinpiarretan edo paralinpiarretan sailkatuta egon arren Kirol Kontseilu Gorenak diziplina edo proba olinpiar edo paralinpiar gisa katalogatzen ez dituen kirol modalitate, diziplina elkartu, espezialitate, proba, klase, mota, distantzia, pisu edo dena delako izendapen edo zehaztapena jasotzen dutenak modalitate horietako bakoitzaren arabera.

2.- Por disciplinas no olímpicas o no paralímpicas se entenderán aquellas modalidades, disciplinas asociadas, especialidades, pruebas, clases, tipos, distancias, pesos o como se denomine o especifique en cada una de las diferentes modalidades que, aún estando clasificadas dentro de las modalidades olímpicas o paralímpicas a fecha de 31 de diciembre del año anterior al de la convocatoria, no estén catalogadas por el Consejo Superior de Deportes como disciplinas o pruebas olímpicas o paralímpicas.

3.- Kirol merituak banakako parte-hartzearekin lotutakoak izango dira, ez bikoteka, binaka, erreleboetan, taldetan eta abar.

3.- Los méritos deportivos deberán hacer referencia al nivel de participación individual en detrimento de los obtenidos por parejas, dobles, relevos, conjuntos, etc.

Taldean lortutako merituetatik nazioarteko lehiaketetakoak baino ez dira baloratuko, eta talde hori osatu duten kideen arabera indize zuzentzaile bat aplikatuko da. Estatu mailan taldean lortutako meriturik ez da aintzat hartuko.

Solamente se valorarán los méritos obtenidos en grupo en el ámbito internacional con la aplicación de un índice corrector en función del número de componentes de ese grupo. Los méritos obtenidos en grupo en el ámbito estatal no se considerarán.

Lortutako kirol errendimenduak balorazio baremoko maila desberdinetan sartzen badira, maila gorenekoa baino ez da aintzat hartuko eman beharreko dirulaguntza zehazteko orduan.

En el caso de obtener rendimientos deportivos de distinto nivel incluidos en el baremo de valoración, únicamente se tendrá en cuenta el nivel superior a la hora de establecer la subvención a conceder.

Ez dira inolaz ere baloratuko kirol-merezimenduak jolas kategorietan, masterretan, beteranoetan eta abarretan.

En ningún caso se valorarán los méritos deportivos en categorías recreativas, master, veteranos/as, etc.

4.- Kirolari bakoitzari dagokion dirulaguntza zehazteko, zatiketa egingo da laguntza deialdi bakoitzera bideratutako aurrekontuaren eta kirolari guztien artean batutako puntu kopuruaren artean; eta gero, biderkatu egingo dira hortik ateratako puntuaren balioa eta kirolari bakoitzak lortutako puntu kopurua.

5.- Gehieneko dirulaguntza ezin izango da 4.000 eurotik gorakoa izan, eta gutxienekoa 500 eurotik beherakoa ere ez. Aurrekontu muga horiek aplikatuz baliagarri den kredituan soberakinik balego, beste programa bateko dirulaguntzak emateko erabiltzeko aukera egongo da.

5.- Justifikazioa.

Dirulaguntzen onuradun diren kirolariek, dirulaguntzen eskaerarekin batera aurkeztu beharko dute 4. oinarri espezifikoan ezarritako kirol merezimenduren bat lortu dutela egiaztatzen duen agiria, dena den horrek ez du eragotziko bidezko kontrolak ezartzea egoera hori benetan gertatu dela egiaztatzeko.

4.- La subvención que corresponda a cada deportista se obtendrá dividiendo el presupuesto destinado en cada convocatoria de estas ayudas entre el número de puntos obtenido por el conjunto de deportistas; y multiplicando el valor del punto así obtenido por el número de puntos del o la deportista de que se trate.

5.- La subvención máxima no será superior a 4.000 euros y la mínima no será inferior a 500 euros. En el caso de que aplicando estos límites presupuestarios se produjera algún sobrante en el crédito disponible, este podrá emplearse en la concesión de subvenciones correspondiente a otro programa.

5.- Justificación.

Los y las deportistas beneficiarios de las subvenciones deberán presentar, junto con la solicitud de la subvención, la documentación acreditativa del logro de alguno de los méritos deportivos señalados en la base específica 4ª, sin perjuicio de los controles que pudieran establecerse para verificar su existencia.

2. ERANSKINA- Modalitate kolektiboetako Gipuzkoako kirolariak.

ANEXO 2.- Deportistas de Gipuzkoa de modalidades de participación colectiva.

1.- Helburua.

Oinarri hauen helburua da Kiroldgi Fundazioak modalitate kolektiboetako Gipuzkoako kirolarien talentuari laguntzak emateko prozesua arautzea. Zehazki, honako kirol modalitateak sartzen dira:

- Saskibaloia, gizonezko eta emakumezkoetan.
- Eskubaloia, gizonezko eta emakumezkoetan.
- Curlinga, mistoko, gizonezko eta emakumezkoetan.
- Emakumezkoen futbola.
- Emakumezkoen areto futbola.
- Belar hockeya, gizonezko eta emakumezkoetan.
- Izotz hockeya, gizonezko eta emakumezkoetan.
- 15eko eta 7ko errugbia, gizonezko eta emakumezkoetan.
- Emakumezkoen sofbola.

2.- Onuradunak.

Gipuzkoako kirolariak, honako eskakizunak betetzen badituzte:

1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko goren mailako eta Kiroldgi Fundazioarekin lankidetzat hitzarmena sinatua duen klub bateko edo Fundazioak esku hartzen ez duen modalitatearen bateko goren mailako talde bateko kide izatea.

2.- Deialdia egin den 2024ean Espainiako Selektzio absolutuarekin edo beherako hurrengo mailarekin lehiaketa ofizialetako partiduetan parte hartu duten kirolariak.

Gipuzkoako kirolaritzat hartuko dira kirol arloko prestakuntza, kadeteen eta jubenilan, Gipuzkoan jaso dutenak, betiere, gutxienez hiru denboraldi segidan eman badituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko klubetan. Hori egiaztatzeko, kasu bakoitzean dagokion federazioak emandako ziurtagiria aurkeztuko du kirolariak.

1.- Objeto.

El objeto de las presentes bases es la regulación de la concesión por parte de Kiroldgi Fundazioa de las subvenciones al talento de deportistas de Gipuzkoa de las siguientes modalidades de participación colectiva:

- Baloncesto femenino y masculino.
- Balonmano femenino y masculino.
- Curling masculino, femenino y mixto.
- Fútbol femenino.
- Fútbol sala femenino.
- Hockey hierba masculino y femenino.
- Hockey hielo masculino y femenino.
- Rugby a 15 y a 7 masculino y femenino.
- Sófbol femenino.

2.- Personas beneficiarias.

Las y los deportistas de Gipuzkoa que cumplan los siguientes requisitos:

1.- Estar adscrita/o a un club del Territorio Histórico de Gipuzkoa de máximo nivel que tenga suscrito convenio de colaboración con Kiroldgi Fundazioa o a un equipo de máximo nivel de una modalidad no intervenida por dicha fundación.

2.- Deportistas que hayan participado en partidos de competiciones oficiales con la Selección Española absoluta o la inmediatamente inferior en 2024.

Se considerarán también de Gipuzkoa las y los deportistas formados deportivamente en las categorías cadete y juvenil en Gipuzkoa que lleven un mínimo de tres temporadas consecutivas en clubes del Territorio Histórico de Gipuzkoa, esto último, se acreditará mediante certificado emitido por la federación correspondiente.

3.- Baztertuak.

Ez dira aintzat hartuko Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako antzeko edo helburu bereko baten laguntzaren baten onuradun diren kirolarien eskaerak.

Ez dira aintzat hartuko gizonezkoen saskibaloiko ACB mailan parte hartzen duten kirolarien eskaerak.

3.- Exclusiones.

No serán atendidas las solicitudes de las y los deportistas que sean beneficiarios de ayudas similares o con la misma finalidad otorgadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

No serán atendidas las solicitudes de los deportistas que participen en la ACB de baloncesto masculino.

4.- Baloratzeko irizpideak eta nola aplikatu.

1.- Deialdiaren 2024ean lortutako kirol-merezimenduak baloratuko dira

Kontzeptu honetan pertsona bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa den zehazteko, honako irizpideak hartuko dira aintzat:

4.- Criterios de valoración y su aplicación.

1.- Se valorarán los méritos deportivos obtenidos en 2024.

Para la cuantificación del importe de la subvención que corresponda a cada persona por este concepto se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

Kirol modalitatea / Modalidad deportiva	Absolutua / Absoluta Puntuak / Puntos	Sub Puntuak / Puntos
Saskibaloia / Baloncesto	10	8
Eskubaloia / Balonmano	10	8
Futbola / Fútbol	10	8
Areto futbola / Fútbol sala	6	4
Belar hockeya / Hockey hierba	6	4
Izotz hockeya / Hockey hielo	6	4
Errugbia, / Rugby 15-7	6	4
Sofbola / Sófbol	6	4
Curlinga / Curling	6	4

2.- Laguntza hauek bakarrak izango dira eta ez da bikoizketarik onartuko, kirolariek modalitate batean baino gehiagotan Espainiako selekzio absolutuarekin edo beherako hurrengo mailarekin parte hartu izana alegatu edo egiaztatzen badute ere.

3. Lortutako kirol errendimenduak balorazio baremoko maila desberdinetan sartzen badira, maila gorenekoa baino ez da aintzat hartuko eman beharreko laguntza ekonomikoa zehazteko orduan.

4.- Kirolari bakoitzari dagokion dirulaguntza zehazteko, zatiketa egingo da laguntza deialdi bakoitzera bideratutako aurrekontuaren eta kirolari guztien artean batutako puntu kopuruaren artean; eta gero, biderkatu egingo dira hortik ateratako puntuaren balioa eta kirolari bakoitzak lortutako puntu kopurua.

2.- Las ayudas serán únicas no admitiéndose duplicidad de las mismas en caso de que los y las deportistas aleguen y certifiquen su participación con la Selección Española Absoluta o la inmediatamente inferior en más de una modalidad deportiva.

3.- En el caso de obtener rendimientos deportivos de distinto nivel incluidos en el baremo de valoración, únicamente se tendrá en cuenta el nivel superior a la hora de establecer la ayuda económica a conceder.

4.- La subvención que corresponda a cada deportista se obtendrá dividiendo el presupuesto destinado en cada convocatoria de estas ayudas entre el número de puntos obtenido por el conjunto de deportistas; y multiplicando el valor del punto así obtenido por el número de puntos del o la deportista de que se trate.

5.- Gehieneko dirulaguntza ezin izango da 4.000,00 eurotik gorakoa izan, eta gutxienekoa 500,00 eurotik beherakoa ere ez. Aurrekontu muga horiek aplikatuz baliagarri den kredituan soberakinik balego, beste programa bateko dirulaguntzak emateko erabiltzeko aukera egongo da.

5.- Justifikazioa.

Diru laguntzen onuradun diren kirolariek, dirulaguntzen eskaerarekin batera aurkeztu beharko dute 4. oinarri espezifikoa ezarritako kirol merezimenduren bat lortu dutela egiaztatzen duen agiria, dena den horrek ez du eragotziko bidezko kontrolak ezartzea egoera hori benetan gertatu dela egiaztatzeko.

5.- La subvención máxima no será superior a 4.000,00 euros y la mínima no será inferior a 500,00 euros. En el caso de que aplicando estos límites presupuestarios se produjera algún sobrante en el crédito disponible, este podrá emplearse en la concesión de subvenciones correspondiente a otro programa.

5.- Justificación.

Los y las deportistas beneficiarios de las subvenciones deberán presentar, junto con la solicitud de la subvención, la documentación acreditativa del logro de alguno de los méritos deportivos señalados en la base específica 4ª, sin perjuicio de los controles que pudieran establecerse para verificar su existencia.